

In Memoriam

Juan José Goiriena de Gandarias (1947-2020)

Esan ohi da, edo pentsatu ohi da, gutxienez, urte batzuk betetzen ditugunez geroztik, zain egoten garela gure biziaren haria noiz eta nola hautsiko ote den. Noiz galduko duen indarra, alegia. Hari hori ahultzen dela pentsatzen baitugu, adinak aurrera egin ahala, edo aski lodia dela, oraindik aski luze egiten zaizkigun urte batzuk ikusten baditugu urrunera. Baina hariak bat-batean, mehea izan nahiz lodia, klik egiten du, ustegabea, eta dena betiko amaitzen da.

Juanjo Goiriena de Gandariasen bi-ziari eusten zion haria ere mehea zen aspalditik, eta ez nagusiki adinagatik. Bazeraman denbora luzea eritasuna gaine-
tik ezin kendu: "Ez, Pello, ez nago ongi, min-
bizia dut", esan zidan berarekin telefonoz
egon nintzen azkenetako batean: "Zaindu
zuk ere zure burua, analisi hau eta hura egin behar dituzu, halako tokitan, falta
gabe, berandu baino lehen". Ahots marrantatu hura entzuten ari nintzela, paper ba-
tean apuntatu nuen laborategiaren izena, eta ezinbestean egin behar omen ni-
tuen analisi guztien izena ere. Gero, berriz ere, bizpahiru aldiz egon ginene-
lkarrekin, eta Leioako bulegoan bisita egiteko astea ere bereizi genuen gure agen-
dan.

Ez zen posible izan: azkenean eritasunak ez zigun hauturik eman elkarrekin
biltzeko, eta espero baino lehenago egin zuen bere lana. Heriotzaren berri izan
nuenean, nire gogoak hiru hamarkada egin zuen atzera berehala. Unibertsitatean
ezagutu bainuen Juanjo, 1992ko irail aldera. Une ilun eta kezagarri hartan (1992-
1996) gidari bat behar zuen EHUK, ez nolana hiko, eta Juanjo izan zen gidari egoki
hori. Bera izan zen gure unibertsitateak behar zuen errektorea. Inoiz ere atzenduko
ez dudana ohorea sentitu nuen berarekin lan egiteko prest nintzen galdetu zidan
egunean. Ez zitzaidan burutik pasatu orduan, orain dela hogeita zortzi urte luze,
gaur bezalako egun argitsu baino triste batean mahai honetan lerro hauek idazten
egongo nintzela. Urte hauetan guztietan, hutsik egin gabe, urtean zehar elkarrekin
egon edo ez, abenduaren 31n, gaueko 10ak aldera, urtero hartzen nuen Juanjo-
ren telefono deia urte berria zorionduz. Beti euskaraz, kosta egiten bazitzaion ere,
aski herdoildua baitzuen hizkuntza.

Ez dakit saga bateko kidea zela esatea asko esatea den, baina egia da Goi-
riena de Gandarias deitura ezaguna zela urte haietan gizartean eta gure unibertsiti-



tatean ere. Gernikan sortua (1948), gogo ahalmen handiko gizona zen: batxilergoa zientzietatik egin zuen goizez eta, diotenez, arratsaldean bere kontura ikasten omen zituen letretako gaiak. Beti kirolarekin lotua, fama zuen txikitari Frantziako itzuliko txirrindularien sailkapena buruz emateko gai omen baitzen: lehenbizikotik azkenekora, edo azkenekotik lehenbizikora, nahi zen moduan. Gainerakoekin erkatu, denbora erdia aski zuen zerbait irakurri edo entzun, eta buruan gelditzeko. Eta hori beti gelditu zitzaion: errektoretzan lanean aritu ginenean ez genuen sobera hitz egiten kirolariez. Baina Frantziako Itzulia iristen zenean, taldeko batzuk txirrindularitzarekin zaletasun handia baikenuen, hola edo hala saiatzen ginen etaparen amaiera ikusten eta komentatzen. Juanjo noiz edo noiz egoten zen, ez maiz. Baina gero, modu informalean zerbait esaten bagenuen, txirrindularien baten izena aipatu, berak, isilik egonik ere, berehala botako zuen: "Bai, horrek halako entrenatzailea du, halako tokitan ibilia da, eta halako sari hura ez zuen irabaziko ez dakit noren laguntza ez izatera". Izugarria zen horretan. Memoria harrigarria.

Bere ibilbide akademiko guztia matrikulaz batea da. Medikuntza ikasketak Salamancan egin zituen. Gero Oviedon eta Murtzian irakasten egon zen, eta azkenean EHUrak etorri zen. Fisiologiako katedratikoa zen, eta bereziki kirol medikuntza landu zuen. Abertzale irekia politikoki, gizon itxia pertsona gisa. Argia eta zorrotza, hori bai. Biziki argia eta zorrotza. Eta jakituna, jakitun handia. Jarri edozein gai mahai gainean: berehala erantzuten zuen. Ez zion adimenaren memoriak huts egiten: denen artean, ekonomia eta historia zituen maite, medikuntzako gaiez gain. Denetatik irakurtzen zuen, denetatik, eta asko. Bulegoan sartzen zinelarik, mahaia egunkariz beteak ikusiko zenuen, hainbeste egunetako egunkariak, berriak eta zaharrak, eta liburuak. Zerbait galdetu eta paperezko sasi hartan hasiko zen behatzen, zuk nahi zenuena, eta berak eman nahi zizuna, aurkitu artio. Eta beti aurkitzen zuen: daturik isilena, txostenik ahaztuena... hantxe zegoen. Ikaragarria zen horretan. Holako lana zuen maite, ez zitzaion gustatzen egunkarietako argazkietan ateratzea. Beti bigarren lerroan. Behar zenean bakarrik lehenbizikoan.

Garai ilunean zegoen EHU klaustroak Juanjo Goiriena de Gandarias errektore aukeratu zuenean. Arrazoi anitzengatik. Horieta bat, sakona, diru kontuekin zegoen lotua. Ez zen diru faltagatik (hori ere): urte haietan diruaren kudeaketak hartua zuen joera zen arazo nagusia. Gobernuaren interbentzio baten atarian ginen. Orduko errektoreak unibertsitatea utzi eta kanpora joanik, hauteskundeak egin ziren eta Juanjok irabazi zituen, joera eta ikusmolde desberdineko talde batek inguraturik. Errektore berriak dena konpondu ez bazuen ere kontuak bide egokian jarri zituen azkenean, neke handiarekin eta lanordu anitz eskainiz gaiari. Oso argi zuen zer zen garrantziko eta zer ez. Zer berehalakoa eta zerk itxaron zezakeen. Eta horren arabera antolatzen zuen lana, eta ingurukoei ere horren arabera eskatzen zigun lan egiteko: ikasketa berriak diseinatu ziren, euskarak indarra hartu zuen, udako ikastaroak, hirugarren adineko gelak sortu ziren, campusak bultzatu, idazkaritza nagusia antolatu, ... Ez du merezi hemen garai hartako lorpenez hitz egitea, hori ongi dokumentatua eta kontatua da dagoeneko. Distantzietatik behaturik, uste dut lan handia eta sakona egin zela urte haietan. Behin eta berriz azpimarratzen zigun kontu bera: "Gure eginkizun nagusia da segurtatzea ikasleek eskolaz izango dituztela gauza guztien gainetik. Hori da gure betebeharrak nagusia. Ikasleek

egunero eskolak izatea". Ez zen erraza izaten, unibertsitario batzuek eskolak egun batean bai eta ondokoan ere oztopatzea eginkizun ia bakartzat hartzen zuten garai hartan.

Ez zuen indarririk izan bigarren aldiz aurkezteko: berak lau urte lehenago jarri zituen helburuak betetzat eman zituenean, erakundea berak hartu zuenean baino bideratuago zela ikusi zuenean, uztea erabaki zuen. Eskoletara itzultzea erabaki zuen. Beste norbaiten txanda zen. Orduan hartu nuen nik aulkia. Baina Juanjok berehala beste ardura bat hartu zuen, Eusko Ikaskuntza erakundean: lehenik RIEV aldikari klasikoko Erredakzio Kontseiluaren kide gisa, urte pare batez (1996-1997), eta lehendakari gisa ere beste sei urtez (1996-2002). Unibertsitatekoarekin erkatuz, lasaiagoa, baina ez zen lan makala hura ere. Ardura horiek guztiek lan orduak eskatzen dituzte, borondatearen truke, neurri handi batean. Lehendakaritza amaiturik ere, RIEV aldizkariaren Batzorde Zientifikoko kidea izan 2014tik 2020ra arte. Ez da erraz aurkitzen holako lanak egiteko jendea. Beste lan batzuetako boluntario gehiago izaten da. Eskertzekoak dira besteren alde egindako lan hauek guztiak.

Juanjo oso atsegina zen tratuan. "Arrunta", esaten dugu gure artean, ez zentzu peioratiboan, baizik guztiz positiboan: gizon arrunta zen, handinahikerien kontrakoa. Lanean konfiantza ematen zien ingurukoei, eta norberaren lan egiteko modua errespetatzen zuen. Baina beretzat hartzen zituen puntuetan, berak zuzenean kudeatu nahi zituenetan, ez zen batere erraza kanpotik muturra sartzea. Apaindura gutxiko gizona, bazekien entzuten, eta diru publikoarekin ez zuen jolasen. Zorrotza zen horretan, argi baitzuen eskuetan kudeatzeko zituen diruak ez zirela bereak. Ongi erlazionatua, jende guztia ezagutzen zuen. Gogoan dut, eta hau adibide adierazgarri bat baizik ez da, nola bidali zion Jose Angel Sanchez Asiain BBVko presidente ohiak Espainiako gerraren finantzaziori buruz idatzi zuen lan mardularen eskuidazkia, argitaratu aurretik, oharrak egiteko eskatuz. Denetatik baitzekien, esan bezala.

Gizon on bat galdu dugu. EHUri eta Eusko Ikaskuntzari mesede eta ekarpen handiak egin dizkiena. Horregatik ere proposatu nuen unibertsitatearen Urrezko domina ematea urte batzuk geroago. Horregatik ere Eusko Ikaskuntzaren eskerak. Ongi mereziak guztiak. Orain agur eta ohore esateko txanda da. Juanjo, ez zaitugu inoiz ere atzenduko. Zure itzalak gure artean segitzen du.

Pello Salaburu